

1.-2019EAG2

G2. Deskribatu eta arrazoitu molekula kobalente hauen geometria balentzia-geruzako elektroik bikoiteen aldarapen-metodoa erabiliz.

- a) Eztainu dikloruroa.
- b) Boro trifluoruroa.
- c) Amoniakoa (edo azanoa).

2.-2019EBG1

G1. Eman erantzun arrazoitua galdekizun hauei:

- a) Adierazi zenbaki kuantikoen multzo hauetatik zein diren posible elektroik balentziat atomo jakin batean: (4,2,0,+1/2); (3,3,2,-1/2); (3,2,-2,-1/2); (2,0,0,-1/2).
- b) Adierazi zer orbitaletan aurkitzen den elektroia zenbaki kuantikoen konbinazio horietan, konbinazio horiek posible direnean.
- c) Ordenatu aurreko ataleko orbitalak energia txikienetik handienara.

3.-2019EBG2

G2. Adierazi ea baieztapen hauetako bakoitza zuzena ala okerra den, eta arrazoitu erantzunak:

- a) Sr^{2+} ioiak gas noblearen konfigurazio elektronikoa du.
- b) Γ^- ioiaren erradioa I atomoarena baino handiagoa da.
- c) CCl_4 molekula apolarra da.

4.-2019UAG2

G1. Sistema periodikoaren A, B eta C hiru elementuren zenbaki atomikoak, hurrenez hurren, 12, 17 eta 20 direla jakinik:

- a) Idatzi haien konfigurazio elektronikoa, eta adierazi non kokatuta dauden taula periodikoan.
- b) Adierazi A eta C elementuen balentzia-elektroien zenbaki kuantikoak.
- c) Zenbat elektroik desparekatu ditu elementu horietako bakoitzak (A, B eta C) bere oinarritzko egoeran?
- d) Alderatu itzazu B eta C elementuen ionizazio-potentzialak.
- e) Ordenatu itzazu hiru elementuak erradio atomikoaren arabera.

5.-2019UBG2

G2. A ($Z = 11$), B ($Z = 15$) eta C ($Z = 17$) elementuak emanda, AC eta BC_3 formulako konposatuak sortzen dira:

- a) Arrazoitu zer lotura mota (ionikoa, kobalentea...) eratuko den A-C eta B-C bikoiteen artean.
- b) Zer geometria izango du lotura kobalentea duen molekula?
- c) Elektrizitatearen eroalea izango al da lotura ionikoa duen konposatua egoera solidoan?